

• Testamentua •

Norberaren eta legearen azken borondatea

Maitatua bezain gorrotatua, heriotza tarteko, liskarren sorburu izaten da maiz. Baina zer ezkututzen da testamentuen gibelean? Zein irizpide finkatzen ditu legeak herentzia bat uzten denean edo uzten ez denean?

UXUA LARRETxea

TESTAMENTUAREN BIDEZ, pertsona batek hil ondoren bere ondasun, eskubide eta betebeharrekin zer egitea nahi duen zehazten du idatziz; horrenbestez, herentziaren barruan ondasunak ez ezik –gauza materialak–, esku-bideak eta betebeharrak sartzen dira. Halere, testamentua ez da erabat askea, legeak baldintza batzuk ezartzen dituelako.

Zer ulertzen da, baina, ondasun moduan? Edozer gauza material izan daiteke ondasuna, esaterako, txabola bat. Nolanahi ere, horretarako ezinbestekoa da uzten duzun hori zurea dela frogatzeko ondasun horien egiaztagiriak notaritzara eramatea.

Eskubideez hitz egiten denean, hala nola, akzioak kobratzeko, edo burtsan inbertitu denean horren onurak jasotzeko eskubideez hitz egiten da. “Kasu horietan testamentuaren onurak etorkizunean eskuratuko lituzke oinordekoak”, azaldu du Kistiñe Lujanbio abokatu hernaniarrak. Berak gertutik ezagutzen du testamentuen auzia arautzen duen legea, besteak beste, eguneroko jardunean sarri egokitzen zaiolako horren inguruan lan egitea.

Betebeharrei dagokionez, gure gizartean ohikoena zorra izan ohi da; adibidez, mailegu bat. Gerta daite-

ke herentziaren bidez ondasun bat jasotzea (etxea kasu), baina ondasun hori mailegatuta egotea. Herentzia jasotzen duenak hori dena jasoko du, bai etxea (ondasuna) bai mailegua (betebeharra), ezin baita herentziaren zati bat hartu eta besteari muzin egin. Gauzak horrela, “gerta daiteke norbaitek herentziaz jasotzen duen zorra eskuratzen dituen ondasunak baino handiagoa izatea”. Edonola ere, herentziari uko egin diezaioke, baina orduan herentziaren osotasunari egingo lioke uko.

Seme-alabak, lehen mailako oinordekoak

Ondasunez hitz egiterakoan ezinbestean oinordekoaren figura agertzen da, testamentuaren onuradunarena, alegia. Legearen arabera, oinordeko batzuk derrigorrezkoak dira, baina beste batzuetan edonor izan daiteke. Lehen mailako oinordekoak seme-alabak edo ondo-rengoak (bilobak) dira. “Eman dezagun aitona



Testamentua egiteko nahikoa da 14 urte izatea eta judizialki gai izatea –mentalki osasuntsu egotea–.

Testamentua

hiltzen dela eta sei seme-alaba dituela; horiek lirateke lehen mailako oinordekoak, baina seme-alaba horietako bat aitona baino lehenago hil bada eta horrek bi seme-alaba baditu, biloba horiek hildako aitona seme-alaben maila berean egongo lirateke”, argitu digu Lujanbiok.

Gerta daiteke seme-alabarik edo bilobarik ez izatea eta, hortaz, gurasoak edo goragokoak izango lirateke derrigorrezko oinordekoak. Egoera bera litzateke alargunen kasuan ere –seme-alabarik izan ezean– nahiz eta bikoteak eta berak partekatzen zituzten ondasunen arabera egokituko zaion. Legeak lehen maila hori hartzen du erreferentziatzen herentzia banatzerakoan. Testamentu oro hiru zatitan banatzen da: legitimoa, hobekuntza herena eta libre xedatzeko herena.

Seme-alabak edo bilobak legitimoari eta hobekuntza herenari dagozkion bi herenak jasoko dituzte. Legitimoa seme-alaben artean banatzen da proportzio berdinetan. Horietako batek berari legez dagokion zatiari uko eginez gero, gainontzeko seme-alaben artean proportzionalki banatuko litzateke zati hori, beti maila berekoen artean banatzen da-eta.

Hobekuntza herena, hautatzen den seme-alabetako batentzat edo gehiagorentzat izan daiteke. Testamentuaren zati horren inguruan ezer zehazten ez bada, legitimoari gehitzen zaio eta seme-alaben artean banatzen da zati berdinetan. Bestalde, libre xedatzeko herena edonori utzi ahal zaion herena da, izan senitartekoa edo ez.

Alargunak erabilera eskubidea jasotzen du

Alarguna dagoenetan nahitaez eskubide bat izango du: usufruktu edo gozamen eskubidea heren baten gainean. Finean, erabilera eskubidea da eta, oro har, bitartean etxebizitza erabiltzeko izaten da. Dena den, Lujanbioren esanetan, “erabilera eskubidea zenbaitetan zentzurik gabe geratzen da, herentziak askotan ez dira-eta ondasunak izaten”. Etxebizitza bat egon daiteke tartean, baina gerta daiteke hildakoak testamentuan zehazki azpimarratzea ez duela alargunak etxebizitza hori erabiltzea nahi, edo alarguna bera izan daiteke bertan bizitzeari uko egiten diona. Kasu horietan usufruktu eskubidea ekonomikoki baloratu egiten da eta testamentuaren gainean dirutan zenbat dagokion zehazten da. Balorazio hori egiteko legeak formula bat proposatzen du: 90 kopuruari alargunaren adina kentzen zaio.



Kistiñe Lujanbio
abokatua.

Gerta daiteke norbaitek herentziaz jasotzen duen zorra eskuratzen dituen ondasunak baino handiagoa izatea. Herentziari uko egin diezaioke, baina herentziaren osotasunari

Hortaz, 70 urte baditu %20 egokituko litzazioke eta 30 urte izanez gero %60. Alarguna zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago egokituko zaio, beraz. % hori herentziaren heren baten gainean jasoko du, baina hori seme-alabak daudenean gertatuko da soilik. Etxebizitza erabiltzeko eskubideari alargunak muzin egiten dionean, etxebizitzaren heren bat seme-alaben gain geratuko litzateke eta beste heren bat, hildakoak libre xedatzeko zatian zehaztutako pertsonaren gain.

Usufruktu eskubidea ezkontza tartean dagoenetan soilik bermatzen da eta, hortaz, izateko bikoteek eta bikote soilik ez dute eskubide hori –legearen aurrean ez dira bikote–. Bananduak badaude, dena epai bidez erabakitzen da.

Normalki testamentuak notaritzan egiten dira testamentu-egilearen bidez. Horretarako norberaren nortasun datuak, ondasunen egiaztagiriak eta oinordekoen ziurtagiriak eraman behar dira. Behin pauso hori eginda, notaritzak testamentua balizkotzat eman dezan herentzia nola banatzen den zehaztu behar da.

Dena den, gerta daiteke hiltzean testamentua eginda edukitzea edo ez, eta hori heriotza ziurtagiriarekin Madrilen edo Parisen dagoen erregistroa joz jakin daiteke. Erregistro horretatik azken borondateen akta jasotzen da, testamentua eginda duen edo ez, eta eginda badu zein notaritzan eta noiz egin duen azalduz. Izan ere, baliteke pertsona horrek hainbat testamentu eginak izatea; kasu horretan egindako azkena izango da baliozkoa, berrienak automatikoki gainontzekoak baliogabetzen baititu. Testamentua egiteko nahikoa da 14 urte izatea eta judizialki gai izatea –mentalki osasuntsu egotea–.

Hildakoak testamenturik egin ez badu, oinordekoen deklarazioa deritzon dokumentu publikoa egin beharko litzateke herentzia eskubidea duten oinordekoak zein diren zehazteko. Behin hori eginda, beste eskriturak bideratzen hasteko moduan leudeke senideak.

Herentzia estatuarentzat

Herentzien inguruan egoera asko eta oso desberdinak eman daitezke; adibidez, gerta daiteke testamentua egin duen pertsona batek bere ondasun guztiak Gobernuz Kanpoko Erakunde bati ematea. Hori posible da derrigorrezko oinordekorik izan ezean. Ildo beretik,



Herentziaren banaketa

Legitimoa

- ✓ Seme-alabei.
- ✓ Bilobei (gurasoak edo Goragokoak ez baleude).
- ✓ Proporzio berdinean.

Hobekuntza herena

- ✓ Seme-alabei.
- ✓ Nahi den proportzioan.
- *Ez bada zehazten, legitimoari gehitzen zaio.

Libre xedatzeko herena

- ✓ Nahi denari, izan familiakoa edo ez.

seme-alabarik, bikoterik eta gurasorik ez dituen izeba edo osaba batek bere bilobetako bati bere herentzia guztia eman diezaioke.

Beste kasu posible bat izan daiteke testamentua egin ez duen pertsona bat hiltzea eta oinordekorik ez izatea. Egoera horretan estatuak –Hego Euskal Herriaren kasuan diputazioak– hartuko luke ondasunen jabetza, baldin eta familia kide bat agertu eta benetan familiakoa dela ziurtatzen ez badu, orduan hark jasoko bailuke ondasunen osotasuna. Iparraldearen kasuan, Parisera joango litzateke ondasunen jabetza, departamenduek ez dutelako eskumen hori.

Ikusten denez, testamentuen inguruko kasuistika oso zabala da, baina “ia egoera posible denak legean barneratuak daude”, abokatuaren esanetan. Halere, aitortu du

Testamentua

testamentua eginda ez dagoenetan prozesua korapilatzen dela.

XIX. mendeko Kode Zibilaren bidez erregulatu da testamentuaren auzia eta, horrenbestez, beharrezkoa ikusten du Lujanbiok lege hori egokitzea: “Egungo familia eredu ez da garai batekoa, eta lege horrek familia eredu tradizionala hartzen du kontuan”. Bestelako gabezia bat izatezko bikoteen edo bikote soilen kasua da, “bietako bat hilez gero bestea ezer gabe geratzen da-eta”. Egoera bidegabe horiek saihesteko askatasun gehiago ematea proposatu du.

Liskarren abiapuntu

Egun, batzuek testamentua egiten dute, baina beste askok ez, heriotzari zaion beldurreratik sarri: “Askok uste du testamentua eginez gero hilko dela eta hortaz, atzeratu egiten du urrats hori emateko unea”. Dena den, testamentua dela-eta jende asko hurbiltzen

zaio, “kasurik gehienetan hildako baten herentzia tramitatzera”. Beste batzuetan, duela urte batzuk hil zen norbaiten ondasun batekin zerbait egiteko jotzen dute bereganara, oinordetzan utzi ez zen etxebizitza bat saltzeko edo alokairuan jartzeko, esaterako. Edonola, testamentuak beti liskarren abiapuntu direla adierazi du hernaniarrak.

Pertsona bati legeak ezartzen duen herentzia zatiketa komeni bazaio ez du beharrezkoa ikusten testamentua egitea, bai ordea eskema sinple horretatik ateratzen den zerbait egin nahi bada; hala nola, seme-alaba bati dagokiona baino gehiago eman, edo emazteari edo senarrari usufuktu eskubide horretaz gain, libre xedatzeko zatia utzi.

Beraz, testamentuak legearen joko arauetatik abiatuta eta mugatuta norberaren azken borondatea gauzatzeko aukera ematen du. ■



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.
Eziago Poligonoa • Zkuffaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com